



## AGUR, MAITEA, IKUSI ARTE

Massimo Carlotto

Itzulpena: Koldo Biguri

Zenbait urtez Hego Amerikan erbestean igaro eta gero, Giorigo Pellegrini ezker muturreko militante ohia Italiara itzultzen da. Espetxea saihestu eta sorlekuan geratu ahal izateko, garai batean kamarada zituen haiek saldu, eta bere iragan politikoa ezabatzeko ahaleginak eta bi egiten ditu. Goi gizarteko irabazleen artean eroso bizi nahian, ez du erreparorik izango bere helburua lortzeko bidean jartzen zaizkion iragan eta egungo trabak gainditzeko.

Eleberri beltz honetan Massimo Carlottok ustelkeriaren gizartea agerian uzten du barne bakarriketa bizi eta ekintzaz betean. Gizartean gora egiteko amarru eta azpijoko sortaren bitartez, Italia garaikidearen kritika sozial gogorra egiten du, bortizkeria eta saldukeria eguneroko ogiarekin nahasian.

### ELEBERRI BELTZA

ISBN: 978-84-18252-85-3

ORRIALDEAK: 216

FORMATUA: 12 x 19

PREZIOA: 16,00 €

- (H)ilbeltza itzulpen bekaren irabazlea.
- Nobela beltzaren egile garaikide ospetsuenetakoa.
- Edgar Allan Poe sarietarako hautagai liburu honekin.
- Zinemara eta komikira eraman dute eleberri hau.




**MASSIMO CARLOTTO** (Padua, 1956) italiar idazle, kazetari, antzerkigile eta gidoilaria da. Lotta Continua (LC) antolakunde komunistako militantea izan zen 1970eko hamarkadan. Hemeretzi urte baizik ez zituela emakume gazte baten hilketa egotzi zioten, eta urtebete eman zuen espetxean epaketaren zain. Italiako berunezko urteak ziren (*anni di piombo*), eta haren kontrako jazarpen politikoa gertatzen ari zela salatzen hasi zen. Auzi luze eta korapilatsu baten ondoren, 18 urteko kartzela zigorra ezarri zioten eta, epaia irmo bihurtu baino lehenago, Frantziara ihes egin eta Latinoamerikara erbesteratu behar izan zuen. Garai hartako bizipenak *Il fuggisco* (*Iheslaria*) eleberri autobiografikoan jaso zituen, zeinarekin gerora film bat egin baitzen. 1993an, Oscar Luigi Scalfaro presidenteak indultua eman zion Carlotto, eta 2004an, berriz, bergaitzapena lortu eta bere eskubide zibil eta politiko guztiak berreskuratu ahal izan zituen. Nobela beltzen egilerik ospetsuenetako bat da gaur egun, hizkuntza askotara itzulia. Hainbat sari irabazi ditu literatura beltzaren alorrean, bai Italian, bai Frantzian, bai eta AEBn ere. Gainera, hamar antzerki-lan, zinemarako gidoiak eta irratirako kolaborazioak egin ditu.

“Carlotto da eleberri beltzen egungo idazle italiarrik onena”.

*Il Manifesto*

txalaparta  
www.txalaparta.eus



Baztango Udala



EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA

Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko  
IV. (H)ilbeltza bekaren irabazlea